

Carmen Ibarguen Mondragon
Arrasate, Gipuzkoa (1925)

Aurkibidea

Biografia

Zintak

ARR-021

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Apaolaza Ibarguen, Ester
- **Data:** 1990-04-10
- **Iraupena:** 24 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Santo Tomasetako erromeria

- **Erref:** ARR-021/001
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:10

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Bidea egin zutenekoa eta inguruko eraikuntza eta tokien aldaketa. Jardin batean irudi bat nola zegoen eta Santo Tomasetan erromeria eta ganadu feria nola egiten zen bertan azaltzen du. Erromeriara joan eta tabernara sartu ziren batekoa; neskak ez ziren tabernetara sartzen.

2. San Andres eta Santa Ageda auzoak

- **Erref:** ARR-021/002
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

San Andres auzoa, zerra, dendak, etab. Santa Ageda inguruko baserri, errota, etab. Lehengo eta gaurko kale eta eraikuntzen aldaketa.

3. Erromeriatik etxera hamarretarako

- **Erref:** ARR-021/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gazteak zirela erromeriara dantzara joaten ziren eta pieza batetik bestera pasiatzera joaten ziren estazio aldera. Gaueko 10etarako etxeratzen ziren.

4. San Juanetako erromeria eta sokamuturra

- **Erref:** ARR-021/005
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:07:32. **Bukatu:** 00:10:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

San Juan bezperan, sua egiten zuten, eta belar batzuk bildu eta bedeinkatu, behiren batek errapea gogortua zuenean igurzteko. Sua plazan egiten zen eta 3 eguneko jaia izaten zen; erromeria, musika-banda eta sokamuturra izaten ziren, besteak beste. Sokamuturrean zezenarekin gertatutako anekdota bat.

5. Aramaion zeudela hasi zen gerra

- **Erref:** ARR-021/006
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:13:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeriak aipatzen ditu, Santa Ageda egunekoa, Santo Tomasak, Urkiolako eguna... Santa Marina egunez, aitaren jaiotetxera joaten ziren Aramaiora. Hara joandako urte batean, gerra nola atera zen eta basabidean oinez nola bueltatu ziren kontatzen du.</p>

6. Gerra denborako pasadizoak

- **Erref:** ARR-021/007
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gerra atera zenean, soldaduak heldu bitartean, gorriak egon ziren; eta erosketak egitera Arrasatera joaten zirenei, "salvoconducto" deiturikoa eskatzen zieten. Gerra denboran pasatako estutasun eta pasadizoak aipatzen ditu.

7. Gerra, soldaduak, tiroketak...

- **Erref:** ARR-021/008
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:20:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran, etxea utzi eta Amerikanoen etxera joan ziren ihesi. Soldaduak etxe ondoan ikusi zituztenekoa eta aitari eskopeta eskatu ziotenekoa kontatzen du; eskopeta entregatu eta etxera bueltatzen utzi zieten. Soldaduek egin zuten bidea azaltzen du; tiroketetan harrapatutako baserriak eta hildako jendea izendatzen ditu.

8. Tiroketa garaian, auzotarrak elkartuta ezkutuan

- **Erref:** ARR-021/011
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:23:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Askotan suertatu ziren tiroketen erdian, baina sekula ez zen etxeko inor zauritu. Auzokoekin batera non ezkutatzen ziren aipatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com